

## PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

<b>Departamentua:</b>	02 - JASANGARRITASUN DEPARTAMENTUA
<b>Atala:</b>	0210 - Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza Nagusia
<b>Programa:</b>	140 - Klima aldaketa
<b>Funtzionala:</b>	172 - Ingurumenaren babesa eta hobekuntza

### Programa mota:

Finalista

### Misioa:

GFaren eskumenetatik abiatuta, garapen hipokarbonikorako trantsizioa eta klima-aldaketaren mehatxua murrizten laguntzea, 2050erako Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Gipuzkoako Estrategia betez (aurrerantzean Gipuzkoa Klima 2050). Emisioen arintzera bideratutako xedeak indartzeaz gain, ahaleginak areagotuko dira Gipuzkoako eremu ezberdinak (naturalak, sozio-ekonomikoak, etab.) klima-aldaketaren arrisku eta inpaktuetara egokitzearekin lotura handiena duten helburuetako ekintza bete-betean garatzeko.

### Egoeraren diagnostikoa:

Klima aldaketa da ingurumen-erronka nagusietako bat, XXI. mendeko erronka nagusia, Nazio Batuek behin eta berriz adierazi duten bezala. Klima Aldaketari buruzko Gobernu arteko Panelaren seigarren ebaluazio txostenak (2021ean argitaratua) adierazten duen bezala, lurreko klima aldatu egin da jada, atmosferan berotegi efektuko gasak metatzearen ondorioz. Horren ondorioz, IPCCk "2022ko Klima Aldaketa: Inpaktuak, egokitzapena eta kalteberatasuna" txostenean ohartarazten duenez, 2011-2020 aldiko lurrazalaren batez besteko tenperatura 1,1°C gainera dago industriaurreko aldiarekin alderatuz (1850-1900). Copernicus-en Klima Aldaketaren Zerbitzua (C3S) oinarri hartuta, 2023 urteak errekor berri bat izan zuen, munduko tenperaturen erregistroetan urte naturalik beroena izan zelarik, 1,48°C-tan gaituz industriaurreko erreferentzia-aldia (1850-1900) baino altuagoa.

2024ko otsailan, 1/2024 Legea, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarena (EAE) onartu da. Lege horrek, besteak beste, berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko helburuak ezartzen ditu, estatuan eta nazioartean ezarritakoez gain. Horrela, 2030ean isurketak % 45 murrizteko bitarteko helburua ezartzen du, 2005. urtearekin alderatuta. Helburu berri honek Gipuzkoa Klima 2050 estrategian ezarritako helburua 5 puntu portzentualetan handitzen du.

Eskuragarri dagoen Euskadiko berotegi-efektuko gasen emisioen azken inbentarioaren arabera (Ihobe, 2024), 2022an Gipuzkoako emisioek % 1,3 egin zuten gora 2021aren aldean, eta % 36 egin zuten behera 2005aren aldean. Azken urte hori, oinarri-urtea da hainbat arauditan eta Gipuzkoa Klima 2050 estrategian ezarritako helburuetarako.

Urtero egindako foru-ekintza ebaluatzen duen Gipuzkoa Klima 2050 Estrategiaren ezarpen-mailari dagokionez, eskuragarri dagoen azken ebaluazioak, 2022ko ekitaldiari dagokionak, erakusten du Estrategiak jasotzen dituen 99 ekintzetatik % 79,8 hasita zeudela, % 5 gauzaturat jotzen dela eta Estrategiaren erabateko ezarpen-maila, gutxienez, % 44ra iristen dela (ziur asko, maila altuagoan kokatuko zen, egindako ebaluazioan ezin izan baitzen foru departamentu guztien informazioz eskuratu).

Estrategiaren indarraldiaren lehen bost urteetan lortutako emaitzak positiboak badira ere, guztiz beharrezkoa da ekintza klimatikoa areagotzea eta, bereziki, berotegi-efektuko gasen emisioak arintzera eta lurraldea klima-aldaketaren arrisku eta inpaktuetara egokitzera bideratutako ekintza indartzea.

### Beharrendaren deskribapen xehatua:

Gipuzkoa berotegi-efektuko gasen isuriak murrizteko bideari eustea lortzen ari da, ezarritako murrizketa-helburuekin lerrokatuta, baina inbertitu beharreko ahaleginak lasaitu gabe, kontrakoa baizik. Izan ere, guztiz beharrezkoa da ekintza indartzea, bai arintzean, bai egokitzean. Arintzeari dagokionez, estrategikoa da lurraldearen trantsizio energetikorako politiken azelerazioan murgiltzea (1. eta 2. jomugak). Arlo honetan garrantzia izango du Gipuzkoako enpresa-ehunaren deskarbonizazio lehiakorra laguntzeko ibilbide-orriaren ezarpenak. Aldi berean, modu integral eta integratuan ekin behar zaie lurraldeko eremu kalteberetan erresilientzia handiagoa lortzeko beharrezkoak diren egokitzapen-neurriei. Arlo honetan, lantzen ari garen 2025-2030 aldirako lurraldearen egokitzapenerako lan programak Gipuzkoa Klima estrategiak jasotakoa areagotuko du.

Klima-aldaketaren aurkako borroka lehen mailako erronka politikoa, instituzionala eta soziala da. Funtsezkoa izango da erakunde barruko eta erakunde arteko oztopoak gaindituko dituzten akordioak eta aliantzak lortzea, bai eta ekoizpen-sektore guztiak eta Gipuzkoako gizarte osoa konpromisoan inplikatzea ere.

**Nori zuzendua:**

GFA bera, beste erakunde publiko batzuk, enpresak, elkarteak eta herritarrak oro har.

**Programaren estrategia.**

**1. Baliabideak (inputak):**

Bitarteko ekonomiko eta giza baliabide propioak Kanpoko laguntza teknikoa kontratatzea

**2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:**

Azterlanak, txostenak eta planak. Inplikatutako foru- eta udal-politiken jarraipena eta bultzada. Monitorizazioa, bisoreak. Argitalpenak. Lankidetzeta-hitzarmenak eta dirulaguntzak. Bekak. Kanpainak eta ekitaldiak. Klima-aldaketaren aurka borrokatzeko proiektuak, obrak eta bestelako jarduerak. Gipuzkoako Klima Aldaketaren Fundazioari egindako ekarpena. Naturklima eraikina mantentzea.

**3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):**

Emisioak murriztea eta klima-aldaketara egokitzea. Klima-aldaketaren jarraipena eta ondorioak. Lurraldeko politiken lerrokatzea (foralak, udalekoak, pribatuak eta gizarte-ekintza). Behatzeko, koordinatzeko eta errazteko tresnak

**Programaren arau esparrua:**

Lurralde historikoen legea. Toki-erregimenaren Oinarrien Legea. Administrazio-legeri orokorra. Kontratazio araudia. 10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena. Ley 7/2021 legea, klima aldaketa eta trantsizio energetikoari buruzkoa. Klima Aldaketari Egokitzeko Plan Nazionala 2021-2030.1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarena (EAE). EAEko 2050erako Klima Aldaketaren Estrategia. Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Gipuzkoako Estrategia 2050. Eragindako politika sektorialen legeria eta plangintza. Europako araudia.

**2024-2027 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA**

**Urteko helburua:** Enpleguaren kalitatea sustatzen duen ekonomia bultzatzea, enpresen erronkei lerrokatuta eta pertsonen beharrei erantzuten diena.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Lanaren ageriko produktibitatea (euro/orduko)	Kopurua	<=	0,00	0,00	0,00	0,00
Dirulaguntza deialdi edota lehiakortasun programetan parte hartutako ETE kopurua	Kopurua	=	0,00	0,00	0,00	0,00




**Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak**

**1. Ekintza lerroa:**

Talentua sortzea, erakartzea, sendotzea eta fidelizatzea eta pertsonen gaitasunak indartzea, besteak beste, proiektu erakargarriak sortuz.



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
<b>Ekintza lerroa, guztira</b>	27.030,32			2025/01/01	2025/12/31	
<b>1.1 Ekintza</b> Klima-aldaketari buruzko ikerketa- eta berrikuntza-proiektuetarako bekak	27.030,32			2025/01/01	2025/12/31	✓
<b>Urteko helburua:</b>	Ekonomia jasangarria, berdea, deskarbonizatua eta bidezkoa bultzatzea, lurralde estrategia garatuz, 2050. urterako klima neutraltasuna bermatuko duena.					
Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Intensidad energética de los sectores productivos	Kopurua	<=	0,00	0,00	0,00	0,00
Nº de empresas participantes en el programa	Kopurua	>=	0,00	39,00	50,00	0,00
Gipuzkoako enpresa sektoreak prozesuen ingurumen hobekuntzetan inbertitutako euroen aldakuntza (%)	Kopurua	=	0,00	0,00	0,00	0,00
Ekonomia berdearen alorrean sortutako enpresa berrien kopurua	Kopurua	=	0,00	0,00	0,00	0,00
<b>Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak</b>						
<b>1. Ekintza lerroa:</b> Lurraldeko sektoreen eraldaketa teknologikoa eta energetikoa bultzatzea, deskarbonizazio eta eraginkortasun energetikoko politiken eta planen bidez.						
 % 1,72	 % 59,37	 % 36,84				
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
<b>Ekintza lerroa, guztira</b>	745.023,16			2025/01/01	2025/12/31	
<b>1.1 Ekintza</b> Enpresa-sareko langileei trantsizio energetikoaren arloko prestakuntza eta espezializazioa ematea	25.610,64			2025/01/01	2025/12/31	
<b>1.2 Ekintza</b> Deskarbonizazio-prozesuetan lantaldeei laguntzeko zerbitzuak garatzea, sektoreka eta/edo lantokika.	124.277,40			2025/01/01	2025/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
<b>1.3 Ekintza</b> Enpresa-sarearen deskarbonizazioa bizkortzeko dirulaguntzen lerroak gaitzea	465.151,60			2025/01/01	2025/12/31	
<b>1.4 Ekintza</b> Dauden pizgarri fiskalak (2/2014 Foru Arauaren 65. artikulua) eta egon daitezkeen beste batzuk balioztatzea.	15.425,80			2025/01/01	2025/12/31	
<b>1.5 Ekintza</b> Gipuzkoako produkzio-sektoreen ezaugarrietan eta deskarbonizazioaren arloan dituzten beharretan sakontzea	30.725,80			2025/01/01	2025/12/31	
<b>1.6 Ekintza</b> Deskarbonizazioa bideratzeko tresnak enpresa-ehunaren esku jartzea (autodiagnostikorako tresnak, deskarbonizazio-plan sektorialak, etab.)	83.831,92			2025/01/01	2025/12/31	

**Urteko helburua:** Klima aldaketari aurre egiteko trantsizioak bultzatzea lurraldearen karbono aztarna gutxituz, karbonoa xurgatzeko ahalmena handituz, birziklapena indartuz, energia iturrien erabileran aldaketak sustatuz eta energia berriztagarriak bultzatuz.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Mendekotasun energetikoaren %	Ehunekoa	<=	92,85	91,00	89,00	85,00
Lurraldean berriztagarriak sortzea (%)	Ehunekoa	=	7,18	10,00	12,00	20,00
BEGen murrizketaren %	Ehunekoa	<=	36,10	38,00	40,00	45,00
Birziklatze tasa (%)	Ehunekoa	>=	55,00	56,00	57,00	60,00
Energia komunitateen kopurua	Kopurua	=	51,00	60,00	70,00	94,00
Klima-aldaketaren adierazlea: kt co2 eq	Kopurua	<=	5.337,00	5.100,00	4.900,00	4.500,00

#### Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak




##### 1. Ekintza lerroa:

Gizartearekin komunikazioa indartzea, sentsibilizazioan sakontzea eta ingurumen-boluntariora sustatzea.



% 100,00

Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
----------------------	---------------------------	---------------	--------------	--------------	--------------------

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
<b>Ekintza lerroa, guztira</b>	44.675,80			2025/01/01	2025/12/31	
<b>1.1 Ekintza</b> Informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak eta -kanpainak	44.675,80			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2. Ekintza lerroa:</b> Klima Aldaketaren Behatokiaren lana sustatzea klima aldaketak gure lurraldean duen eragina aztertzeko eta aurreikusteko eta estrategia eta ekintza koordinatu eta bateratuak garatzeko.						
<div style="display: flex; justify-content: space-around; align-items: center;"> <div style="text-align: center;">  <p>13 KLIMAREN ALDEKO EKINTZA</p> <p>% 63,19</p> </div> <div style="text-align: center;">  <p>16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK</p> <p>% 21,29</p> </div> <div style="text-align: center;">  <p>17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA</p> <p>% 14,20</p> </div> </div>						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
<b>Ekintza lerroa, guztira</b>	1.898.775,72			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2.1 Ekintza</b> Klima-aldaketara egokitzeko lan-programa definitzea	33.301,60			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2.2 Ekintza</b> Egokitzeko beste ekintza batzuk bultzatzea	54.327,40			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2.3 Ekintza</b> Fundazioari egindako ekarpenak	1.005.904,16			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2.4 Ekintza</b> Naturklima egoitza mantentzea eta hobetzea	366.815,16			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2.5 Ekintza</b> 2050erako Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Estrategiaren (Gipuzkoa Klima 2050) garapena eta jarraipena bultzatzea.	438.427,40			2025/01/01	2025/12/31	



## GENERO BERDINTASUNEN PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Txikia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Osasun zerbitzuak jasotzea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

150. programak klima-aldaketaren aurkako borroka du helburu, Gipuzkoa Klima 2050 estrategia gauzatuz. Estrategia horrek genero eraginaren ebaluazioa izan zuen, eta ebaluazio horretan hura osatzen duten 99 ekintzak aztertu ziren, neurriak sartzearen egokitasuna zehazteko, xedapen orokorretan genero eragina ebaluatzeko txostenak egiteko jarraibideak aplikatuz. Azterketa horren ondorioz, estrategiak genero berdintasuna sustatzeko neurriak ditu 41 ekintzatan. Ondorioz, estrategian jasotako ekintzen hedapenean kontuan hartuko dira neurri horiek.



## HIZKUNTZA BERDINTASUNEN PLANA

### Beharraren deskribapen xehatua:

Programa honen ekintzak zuzenduko dira, alde batetik klima aldaketa arintzera eta haren ondorioetara egokitzera eta bestetik, kontzientziatutarako tresnak eta kanpainak egitera. Beraz, zerbitzu hizkuntza atala landuko da bereziki. Bestalde, enpresen kontratazioetan hizkuntz irizpideak txertatuko dira eta haiek betetzen diren jarraipena egingo da.

Kategoria	Nola
8.- Herritarrekiko harremanak	Gauzatuko diren komunikazioetan bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da




GJH

**Beharraren deskribapen xehatua:**

150 Programak zuzeneko ekarpena egiten dio 13. GJHari (KLIMAREN ALDEKO EKINTZA), nahiz eta bere ekintzek beste GJH batzuen xede asko lortzen laguntzen duten.

**Kuantifikazioa:** 2.675.079,20 ( % 99,43 )

**Programari lotutako GJH zerrenda**

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	<p>4-Kalitatezko hezkuntza</p> <p>Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.</p>	12.805,32	
<b>Helburua</b>	<p>4.7 - 2030. urterako, ikasle guztiak garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza aberatsak eta praktikoak eskuratzen dituztela bermatzea, besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizimodu jasangarrietarako hezkuntzaren, giza eskubideen, genero berdintasunaren, bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura sustatzearen, mundu mailako hirigintzaren eta aniztasun kulturalaren eta kulturaren garapenerako hezkuntzaren bitartez.</p>	12.805,32	
<b>Ekintza lerroak</b>			
	<p>Lurraldeko sektoreen eraldaketa teknologikoa eta energetikoa bultzatzea, deskarbonizazio eta eraginkortasun energetikoko politiken eta planen bidez.</p>	12.805,32	
	<p>9-Industria berrikuntza eta azpiegiturak</p> <p>Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.</p>	442.300,28	
<b>Helburua</b>	<p>9.4 - 2030. urterako, azpiegiturak modernizatzea eta industriak eraldatzea, jasangarriak izan daitezzen. Horretarako, eraginkortasun handiagoko baliabideak erabili behar dira eta teknologia- eta industria-prozesu garbiak eta ingurumenaren ikuspegitik arrazoizkoak erabiltzen direla bermatu behar da, eta herrialde guztiak dagozkien ahalmenen arabera neurriak har ditzatela lortu behar da</p>	442.300,28	
<b>Ekintza lerroak</b>			
	<p>Lurraldeko sektoreen eraldaketa teknologikoa eta energetikoa bultzatzea, deskarbonizazio eta eraginkortasun energetikoko politiken eta planen bidez.</p>	442.300,28	
	<p>13-Klimaren aldeko ekintzak</p> <p>Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko (Aintzat hartuta Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmena klima aldaketari mundu mailan erantzuteko gobernuen arteko eta nazioarteko foroa nagusia dela).</p>	1.546.113,94	
<b>Helburua</b>	<p>13.1 - Klimarekin eta hondamendi naturalekin lotutako arriskuekiko erresilientzia eta horietara egokitzeko ahalmena sendotzea herrialde guztietan</p>	482.241,90	



GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
<b>Ekintza lerroak</b>			
	Klima Aldaketaren Behatokiaren lana sustatzea klima aldaketak gure lurraldean duen eragina aztertzeke eta aurreikusteko eta estrategia eta ekintza koordinatu eta bateratuak garatzeko.	482.241,90	
<b>Helburua</b>	13.2 - Klima-aldaketarekin lotutako neurriak sartzeko politika, estrategia eta plan nazionaletan	291.142,56	
<b>Ekintza lerroak</b>			
	Lurraldeko sektoreen eraldaketa teknologikoa eta energetikoa bultzatzea, deskarbonizazio eta eraginkortasun energetikoko politiken eta planen bidez.	274.491,76	
	Klima Aldaketaren Behatokiaren lana sustatzea klima aldaketak gure lurraldean duen eragina aztertzeke eta aurreikusteko eta estrategia eta ekintza koordinatu eta bateratuak garatzeko.	16.650,80	
<b>Helburua</b>	13.3 - Hezkuntza, sentsibilizazioa eta giza eta erakunde-gaitasuna hobetzea klima aldaketa arintzeko, hartara egokitzeko, ondorioak murrizteko eta alerta goiztiarra izateko.	772.729,48	
<b>Ekintza lerroak</b>			
	Talentua sortzea, erakartzea, sendotzea eta fidelizatzea eta pertsonen gaitasunak indartzea, besteak beste, proiektu erakargarriak sortuz.	27.030,32	
	Klima Aldaketaren Behatokiaren lana sustatzea klima aldaketak gure lurraldean duen eragina aztertzeke eta aurreikusteko eta estrategia eta ekintza koordinatu eta bateratuak garatzeko.	701.023,36	
	Gizartearekin komunikazioa indartzea, sentsibilizazioan sakontzea eta ingurumen-boluntariora sustatzea.	44.675,80	
	16-Bakea, justizia eta instituzio sendoak	<b>404.315,80</b>	
	Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrek eta inklusiboak sortzea maila guztietan.		
<b>Helburua</b>	16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrek eta gardenak sortzea maila guztietan	404.315,80	
<b>Ekintza lerroak</b>			
	Klima Aldaketaren Behatokiaren lana sustatzea klima aldaketak gure lurraldean duen eragina aztertzeke eta aurreikusteko eta estrategia eta ekintza koordinatu eta bateratuak garatzeko.	404.315,80	
	17-Helburuak lortzeko aliantza	<b>269.543,86</b>	
	Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.		
<b>Helburua</b>	17.17 - Arlo publikoan, publiko-pribatua eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrek sor daitezen sustatzea, aliantzen baliabideak lortzeko estrategiak eta esperientzia baliatuz.	269.543,86	
<b>Ekintza lerroak</b>			
	Klima Aldaketaren Behatokiaren lana sustatzea klima aldaketak gure lurraldean duen eragina aztertzeke eta aurreikusteko eta estrategia eta ekintza koordinatu eta bateratuak garatzeko.	269.543,86	
<b>Guztira</b>		<b>2.675.079,20</b>	



**PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA**

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2024	2025	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2026	2027	2028	2029 eta hurrengoak/ 2029 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	144.803,00	151.516,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	275.000,00	485.600,00					
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	886.082,00	1.853.389,00					
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>1.305.885,00</b>	<b>2.490.505,00</b>					
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES	150.000,00	150.000,00					
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	75.000,00	75.000,00					
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>	<b>225.000,00</b>	<b>225.000,00</b>					
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS							
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>							
<b>Guztira / Total</b>	<b>1.530.885,00</b>	<b>2.715.505,00</b>					

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	151.516,00				151.516,00	
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	485.600,00				485.600,00	
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	1.853.389,00				1.853.389,00	
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
<b>Eragiketa arruntak, guztira</b> <b>Total operaciones corrientes</b>	<b>2.490.505,00</b>				<b>2.490.505,00</b>	
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES	150.000,00				150.000,00	
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	75.000,00				75.000,00	
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira</b> <b>Total operaciones de capital</b>	<b>225.000,00</b>				<b>225.000,00</b>	
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS						
<b>Finantza eragiketak, guztira</b> <b>Total operaciones financieras</b>						
<b>Guztira / Total</b>	<b>2.715.505,00</b>				<b>2.715.505,00</b>	